




2011

# GERRA ZIBILA

## 1936KO FUSILATZEAK

**Luix Errazkin - Unai Agirre**  
**(HERNANI 2011)**



“Urtetan egindako zorra genuen duela 75 urte, 1936ko udazkenean Hernanin hil edota hobiratu zituztenekin eta haien desagertuen samintasuna isilean, sarritan ezkutu, malkoak erakutsi gabe luzaroan bizi beharra izan diten ahaide eta lagunekin. Errepublika demokratikoaren aurka 1936ko uztailaren 18an altxatu zirenek berrehun bat lagun fusilatu edota lurperatu zituzten Hernanin, izenik gabe epaiketarik gabe, inolako errukirik gabe. Eta orduan desagertutakoak ez dira ageri izan diktadurako urte luzeetan, ez zitzaizen hilobi duin bat eskaini, are gehiago, amnesian oinarritu nahi izan zen diktadorea hil ondoren sortu zen Estatu berria, eta oraintsura arte ezer asko ez zaie eskaini frankistek betiko ahanzturara kondenatu nahi izan zituztenei. Zor hori kitatu beharra dugu, eta memoria eta duintasuna berreskuratu”.

(“1936ko udazkena Gipuzkoan. Hernaniko fusilatzeak”)

# GERRA ZIBILA

1

Hernani herri bildua;  
bizi beharrak zaildua;  
lanean korapildua.  
Mila beatzirehun hogeita hamasei  
triste hartan abaildua;  
nahigabeen amildua;  
uztail beltzak umildua;  
tiro hotsek isildua.

2

Gerrako abioi tutu,  
lubaki erdi-ezkutu,  
elkarren aurka estutu...  
Kanposantuko pareta zaharrek  
zer ez zuten ezagutu?  
Zahar eta gazteak juntu,  
bala errazen jo-puntu;  
orduaz ziren mututu.

3

Herri honen azpi lotsak,  
desberdinak guztiontzat,  
zer indar dun heriotzak!  
Galarretatik Tellerigaina  
zeramazkiten hilotzak...  
hausten zituen bihotzak,  
eta isiltasun hotzak:  
gurdiaren negar hotsak.

4

Herriko jende aparta  
lurperatu zen hamarka,  
zapata eta abarka;  
izeba zenak, izen abizen,  
esan zizkidan bakarka...  
falangista eta carca  
denez oroitzea marka!  
ta ni mututzea barka...

5

Suntsitze antolamendu  
hau da gordean mantendu,  
nahiz ta seguru gauden gu.  
Ondarretako kartzela zena  
gogotikan ezin kendu!  
Urri, azaro, abendu,  
itsasoak ekartzen du,  
baldin entzun nahi bagendu.

6

Galdutakoen altzora,  
oroigarri eta lora,  
jarri duenik asko da.  
Hor lurperatu omen zituzten  
berrehun gorputzetik gora;  
berriz hezurak kanpora,  
eraman ziren gerora,  
norbaitek badaki nora...

7

Kanpandorreko ezquila;  
agonian norbait hila,  
hiru urtez zenbait mila...  
Hernanin hainbat hildako utziz  
joan zen Gerra Zibila;  
askok jarraitzen du bila,  
eskatuz entzun dadila:  
GERRAREN OIHU ISILA.